

PROGRAMAREN DATU OROKORRAK

Departamentua: 01 - DIPUTATU NAGUSIA
Atala: 0160 - Eraldaketa Digitaleko Zuzendaritza Nagusia
Programa: 600 - Eraldaketa Digitala
Funtzionala: 912 - Gobernu organoak

Programa mota:

Finalista

Misioa:

Herritarrekin komunikazio digital arin eta eraginkorra sustatu eta bultzatzea, konfiantza maila handiagoa lortzeko, erakundearen komunikazio estrategia garatuz, iritzi publikoari dagokionez, bitarteko digitalen eta sare sozialen bidez.

Egoeraren diagnostikoa:

Azken urteotan agerian geratu da erakunde publikoen eta herritarren arteko urruntzea. Horregatik, kalitatezko komunikazio digitala bermatu behar da, lerrokatua eta koherentea, herritarren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko harremana sendotzeko, gizarte informatuagoa, eguneratuagoa eta parte-hartzaileagoa sortzen lagunduz. Halaber, barne komunikazioa indartu behar da Foru Aldundiko langileekin, haien inplikazioa areagotzeko. Bestalde, ukaezina da egungo gizartearen aldaketa prozesu sakon batean murgilduta dagoela; bizimodua, erritmoak, kontsumo ereduek, komunikazio tresnak... Digitalizazioa da herritarren, enpresen eta erakundearen erronka nagusietako bat. Nabarmentzekoa da erakunde baten komunikazioa digitalizatzeko gaitasun eraldatzailea. Baliabide digitalak prozesuak eta komunikazioak eraginkorragoak eta lehiakorragoak izateko bidea dira, eta herritarrengandik hurbil egoteko aukera ematen digute, teknologia berriak baitira gaur egun komunikazio biderik erabilienak eta boteretsuenak. Era berean, erakunde gisa, ezinbestekoa da Europar Batasuneko araudietara egokitzea, hala nola Datuak Babesteko Europako Araudira eta 2019/882 Zuzentaraura.

Bestalde, Gipuzkoako Foru Aldundiak bat egin nahi du NBEren Garapen Jasangarriko Helburuekin (GJH). Aurrekontu programa honen kasuan, 16. helburuan oinarritzen da: Bakea, justizia eta erakunde sendoak. 2021. urtean, gainera, covid-19ren eragina nabarmena izango da GFaren jardueran. Aurrekontu programa honen edukiak ez du aldaketa sakonik izango, baina, ezinbestean, eragina izango du gure lan moduetan.

Beharraren deskribapen xehatua:

Gipuzkoako Foru Aldundiak gizarteak erakundearekiko duen konfiantza handitu nahi du, eta, horregatik, eremu digitaleko estrategia komunikazioa eta pertsonetikiko elkarrekintzen kalitatea hobetzera bideratu behar da; izan ere, herritarrekiko harreman hori hobetuz, komunitate bizitzan parte hartzea errazteaz gain, erakundea bera demokratikagoa, irekiagoa eta eraginkorragoa izatea lortuko dugu. Beraz, legealdi honetarako erronka nagusietako bat da Foru Aldundiaren lana herritarrengana hurbiltzea; horretarako, komunikaziorako bide tradizionalak nahiz komunikazio tresna eta sistema berriak erabiliko ditu.

Estrategia Digitaleko Zuzendaritzak, Aldundiaren eguneroko lana errazteko prestakuntza eta laguntza tekniko eskaintzeaz gain, bere helburuen artean du euskarri digitalak berritu eta egokitzea. Herritarrei zerbitzu hobea eskaintzeko konpromisoa du, Aldundiaren kanal digitaletan eskaintzen diren arreta eta informazio zerbitzuak optimizatuz. Gizartearekiko komunikazioa indartzeko, ezinbestekoa da Foru Aldundiaren web presentzia normalizatzea eta hobetzea, bai eta sare sozialak bultzatzea ere. Horretarako, beharrezkoa da prozesu analitikoak abian jartzea, herritarren beharrak ezagutu eta informazio eta edukien eskaintza egokitzeak.

Datuen antolaketari eta pribatutasunari dagokionez, helburua da erakundean datuen segurtasunerako kudeaketa sistema bat ezartzea.

Nori zuzendua:

Herritarrak, oro har, eta GFAko langileak.

Programaren estrategia.

1. Baliabideak (inputak):

Langilegoa, ekintzak garatzeko kontratatutako enpresak, baliabide ekonomikoak, komunikaziorako tresneria eta teknologi berriak.

2. Garatu beharreko jarduerak/prozesuak:

Bilerak, plangintzak, prentsaurrekoak eta ekitaldiak, prentsa-oharrak, komunikazio bide berriak hobetzeko prestakuntza, kontratuak, sare sozialak...

3. Ondasun eta Zerbitzuak (outputak):

Komunikazio Plana, prentsa areto digitalizatua, www.gipuzkoa.eus, zuzeneko komunikazioa, informazioaren segurtasuneko eta datu pertsonalen babeseke arloan aholkularitza.

Programaren arau esparrua:

4/2014 Foru Araua, gardentasunari eta informazio publikoa eskuratzeari buruzkoa.
Apirilaren 26ko 26/2005 FORU DEKRETUA, Gipuzkoako Foru Aldundiaren herritarrentzako laguntza eta arreta zerbitzuak arautzen dituena.
Kontratu publikoen araudia.
Datuen babeserako europako araudia.
Europar Batasuneko irisgarritasun 2019/882 direktiba.

DEPARTAMENTUAREN JARDUKETA OPERATIBOA

Urteko helburua: Foru Aldundiaren baliabide eta euskarri teknologikoak eraberritzea herritarrekiko komunikazioa hobetzeko

Adierazlea	Neurri-unitatea	Helburu mota	Azken balioa	Aurtengo aurreikuspena	Urteko helburua	Agintaldiko helburua
gipuzkoa.eus ataria eraberritu irisgarritasuna eta erabilgarritasuna bermatzeko	Ehunekoa	>=	0,00	60,00	100,00	100,00
gipuzkoa.eus-eko bisita kopurua handitzea	Kopurua	>=	0,00	6.000.000,00	6.500.000,00	6.500.000,00
Sare sozial nagusietan herritarrekiko konexioa (engagement) handitzea	Kopurua	>=	0,00	43,50	45,00	45,00

Helburuari lotutako jarduketa ildoak eta ekintzak

1. Jarduketa ildoak:

GFaren webgune, sare sozialak eta gainerako euskarri digitalak berritzea, hobetzea eta homologatzea, eta GFAk Interneten duen presentzia eta ematen duen informazioa definitzea eta kudeaketa sistematizatzea.



% 87,04



% 11,51

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Jarduketa ildoak, guztira	452.508,00			2023/01/01	2023/12/31	
1.1 Ekintza	108.412,92			2023/01/01	2023/12/31	
Gipuzkoako Foru Aldundiak ingurune digitalean duen kokatze zuzena indartzea eta kudeatzea, eta interneten gizartearekiko komunikazio ekintza eraginkorrak kudeatzea .						

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
1.2 Ekintza Gipuzkoarentzako estrategikoak diren gaiak jorratuko dituzten ekintzak antolatzea eta herritarren artean gizarteratzea, parte hartzea eta sareetako komunikazio-harremanak sustatzeko.	104.177,92			2023/01/01	2023/12/31	
1.3 Ekintza Eduki digitalak eskuratzeko GFaren webgune eta aplikazioak moldatzea irisgarriak eta erabilerrazak izan daitezen herritar guztientzako.	129.177,92			2023/01/01	2023/12/31	
1.4 Ekintza Lurraldeko esparru anitzeko eragileen parte hartzearekin Gipuzkoaren etorkizunerako gakoak diren erronkak aztertuko dituen ekintzak antolatzea eta ingurune digitalean sustatzea.	104.177,92			2023/01/01	2023/12/31	
1.5 Ekintza Programaren dirulaguntzen edota kontratuen mapa linguistikoa osatu	6.561,32			2023/01/01	2023/12/31	

GENERO BERDINTASUNEKO PLANA

Programaren genero garrantzia: Handia

Programak ukitzen duen kolektiboa:

Populazio osoa

Programak ukitutako gaitasuna(k):

Gizartean eta politikan parte hartu ahal izatea

Beharraren deskribapen xehatua:

Herritarrekin komunikazio digital arin eta eraginkorra sustatu eta bultzatu nahi da, konfiantza maila handiagoa lortzeko, erakundearen komunikazio estrategia garatuz, iritzi publikoari dagokionez, bitarteko digitalen eta sare sozialen bidez. Lan honetan ezinbestekoa da genero berdintasunaren ikuspegia txertatzea ekintza guztietan. Ezin da barne edo kanpoko komunikaziorako dokumenturik sortu ikuspegi hau txertatu ez bada lehenago.

Kuantifikazioa: 1.302,22 (% 0,29)

Ordainketa kredituak: 1.302,22 (% 0,29)

Datozen urteetako gastuak: 0,00 (% 0,00)

Kategoria	Nola	Nola %	Esleitutako adierazlea
Go.HO.5.1. Informazioaren sorreran, tratamenduan eta zabalkundean sexu aldagaia sistematikoki txertatzen jarraitzea, eta pertsonen zein genero ikuspegia txertatzeko prozesuei eta prozedurei buruzko adierazleak sortzeko eta jasotzeko aurrerapausoak egitea.	Go.5.1.3. GFaren azterlanetan, planetan, txostenetan eta gainerako dokumentazio estrategikoetan datuak sexuaren arabera eta genero adierazleekin sartzeko.	(% 100,00)	

HIZKUNTZA BERDINTASUNeko PLANA

Beharraren deskribapen xehatua:

Herritarrekin komunikazio digital arin eta eraginkorra sustatu eta bultzatu nahi da, konfiantza maila handiagoa lortzeko, erakundearen komunikazio estrategia garatuz, iritzi publikoari dagokionez, bitarteko digitalen eta sare sozialen bidez. Lan honetan ezinbestekoa da hizkuntz berdintasunaren ikuspegia txertatzea ekintza guztietan. Ezin da barne edo kanpoko komunikaziorako dokumenturik edo kanpainarik sortu ikuspegi hau txertatu ez bada lehenago.

Kategoria	Nola
11.- Tresna eta aplikazio informatikoak	Esparru digitalean Gipuzkoako Foru Aldundiaren presentzia bermatzeko eta handitzeko lanean jarraitzen dugu. Baita herritarrei zerbitzu hobeago bat eskaintzeko ere. Horretarako, webguneak eta sare sozialak dira gure erreminta nagusiak. Webguneen kasuan, eduki guztia, gutxienez, euskaraz dago. Sare sozialetan hiru hizkuntza erabiltzen baditugu ere, edukiaren % 60, gutxienez, euskaraz dago.
12.- Internet eta intranet sareak	Aldundiarentzat eta Gipuzkoarentzat estrategikoak diren gaiak zabaltzen ditugu kanal digital guztietan. Gainerako departamentuekin elkarlanean gizarteratzen ditugu gai horiek eta herritarren parte-hartzea bilatzen da beti komunikazio guztietan. Ekintza horietan guztietan hizkuntza irizpidea ere kontuan hartzen da eta edukien % 50, gutxienez, euskaraz egiten da.
5.- Komunikazio instituzionala	Momentuz puntu hau garatu ez den arren, aurten ekintza garrantzitsu bat eramango dugu aurrera. Etorkizuna Eraikiz kongresuaren barruan, jorratuko diren gaien inguruan adituak direnekin elkarrizketak eta mahai inguruak egingo dira. Horiek, sare sozialen bitartez zabalduko dira eta herritarren parte-hartzea bilatuko da. Gainerako edukiak egiten dugun bezala, edukien % 50, gutxienez, euskaraz izatea bilatzen dugu.
8.- Kontratazio administratiboak eta diru laguntzak	


GJH

Beharraren deskribapen xehatua:

Garapen Jasangarriko Helburuak aztertu ondoren, aurrekontu programa honen jarduketa ildoak, hau da, "GFaren webgune, sare sozialak eta gainerako euskarri digitalak berritzea, hobetzea eta homologatzea, eta GFak interneten duen presentzia eta ematen duen informazioa definitzea eta kudeaketa sistematizatzea ", 5. Genero berdintasuna, 16. Bakea, justizia eta instituzio sendoak eta 17. Helburuak lortzeko aliantza helburuak hartzen ditu aintzat.

Kuantifikazioa: 445.946,68 (% 98,55)

Programari lotutako GJH zerrenda

GJH, Helburu eta Jarduketa ildoak		Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak
 16 BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK	16-BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK	393.857,72	
	Garapen jasangarrirako gizarte baketsuak eta inklusiboak sustatzea, guztioi justiziarako sarbidea erraztea, eta erakunde eraginkorrak eta inklusiboak sortzea maila guztietan.		
Helbubura	16.06 - Kontuak emango dituzten erakunde eraginkor eta gardenak sortzea maila guztietan.	341.768,76	
	Jarduketa ildoak		
	GFaren webgune, sare sozialak eta gainerako euskarri digitalak berritzea, hobetzea eta homologatzea, eta GFak Interneten duen presentzia eta ematen duen informazioa definitzea eta kudeaketa sistematizatzea.	341.768,76	
Helbubura	16.07 - Premiei erantzungo dieten erabaki inklusibo, parte-hartzaile eta adierazgarriak maila guztietan hartzen direla bermatzea.	52.088,96	
	Jarduketa ildoak		
	GFaren webgune, sare sozialak eta gainerako euskarri digitalak berritzea, hobetzea eta homologatzea, eta GFak Interneten duen presentzia eta ematen duen informazioa definitzea eta kudeaketa sistematizatzea.	52.088,96	
 17 HELBURUAK LORTZEKO ALIANTZA	17-HELBURUAK LORTZEKO ALIANTZA	52.088,96	
	Ezarpen-baliabideak sendotzea eta Garapen Jasangarrirako Munduko Ituna biziberritzea.		
Helbubura	17.17 - Arlo publikoan, publiko-pribatuan eta gizarte zibilean aliantza eraginkorrak sor daitezen sustatzea, aliantzen baliabideak lortzeko estrategiak eta esperientzia baliatuz.	52.088,96	
	Jarduketa ildoak		
	GFaren webgune, sare sozialak eta gainerako euskarri digitalak berritzea, hobetzea eta homologatzea, eta GFak Interneten duen presentzia eta ematen duen informazioa definitzea eta kudeaketa sistematizatzea.	52.088,96	
Guztira		445.946,68	

PROGRAMAREN AURREKONTUAREN LABURPENA / RESUMEN DEL PRESUPUESTO DEL PROGRAMA

Gastuen kapituluak / Capítulos gastos	2022	2023	Datozen urteetako gastuak/Gastos Futuros				
			2024	2025	2026	2027 eta hurrengoak/ 2027 y siguientes	Guztira / Total
1. LANGILERIA GASTUAK/ GASTOS DE PERSONAL	153.285,00	164.033,00					
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK/ GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS	259.240,00	259.240,00					
3. FINANTZA GASTUAK/ GASTOS FINANCIEROS							
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES	4.235,00	4.235,00					
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS							
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes	416.760,00	427.508,00					
6. INBERTSIO ERREALAK/ INVERSIONES REALES	25.000,00	25.000,00					
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL							
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital	25.000,00	25.000,00					
8. AKTIBO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS							
9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS							
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras							
Guztira / Total	441.760,00	452.508,00					

Planen zenbateko osoa, kapituluka / Total planes/capítulos	Ordainketa kredituak / Créditos de pago		Datozen urteetako gastuak / Gastos futuros		Guztira / Total	
	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo
1. LANGILERIA GASTUAK/ GASTOS DE PERSONAL		164.033,00				164.033,00
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK/ GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS		259.240,00				259.240,00
3. FINANTZA GASTUAK/ GASTOS FINANCIEROS						
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES		4.235,00				4.235,00
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS						
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes		427.508,00				427.508,00
6. INBERTSIO ERREALAK/ INVERSIONES REALES		25.000,00				25.000,00
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL						
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital		25.000,00				25.000,00
8. AKTIBO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS						
9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS						
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras						
Guztira / Total		452.508,00				452.508,00